

Bertsoaren mintzoa ♦

Arabarren argazkia

Asier Otamendik irabazi zuen San Prudentzio saria, iragan asteartean, Gasteizko Florida kultur etxean

Jon Abril / Gasteiz

Gaur zortzi Gasteizko Florida kultur etxean jokatu-tako San Prudentzio bertso sariketan Asier Otamendi atera zen garaile, hirugarren aldiz segidan. Arabako bertsolarien agertoki da sariketa, eta goranzko bidean daudela erakutsi zuten bertsolariek.


ARABARREK beren bertso txapelketa edukiko duten zurrumurrua zabaldu da azkenaldian. Oraindik eztabaida gaia baino ez da hori, eta, hortaz, Araba-Bizkaiko txapelketaz landa, arabarren lana San Prudentzio sarian erakutsi ohi da. Aurtengo aldia, hamargarrena, arrunt arrakastatsu iragan da, bai aurkeztutako bertsolari kopuruagatik, bai saioetara, eta batik bat finalera, joan den jende kopuruagatik. Finaleko saioa bizi joan ez bazen ere, Arabako bertsolaritza non dagoen eta norantz doan ikusteko hagitz baliagarria izan zen. Jende kopurua hizpide izan zuen kartzelako gaien Oihane Pereak, puntua eman ziotenean:

Oihane Perea:

Aurten hamargarrenez dugu txapelketa eta ekarri ditu hainbat berriketa lehendabizikoz dago Florida beteta txapela Oihanerentzat izango da eta.

Saioak bi fase izan zituen. Bigarrenerako gelditu zen bikotea Arabako bertsolaritzaren ordezkari ezagunenak bihurtu dira azken boladan, eta horrek gauzak erraztu zizkien txapelarako lehian aritzeko tenorean.

Hala, Asier Otamendik merezimendu osoz lortu zuen txapela, erregular aritu zen, Oihane Perearen aitzinetik. Gainerako lau bertsolariek gorabehera gehiago izan zituzten. Zigor Enbeitak eta Asier Iriondok erraz egin zuten bertsotan, baina urduritasunak menpean hartu zituen behin baino gehiagotan. Arazo gehiago izan zituzten Serapio Lopezek zein Nagore Soroak. Serapio Lopezek urte mordoa darama



Asier Otamendi, San Prudentzio sariko txapelduna.

bertsogintzaren inguruan. Inor gutik espero zuen Lopez finalean ikustea, eta, hortaz, sorpresa atsegina izan da. Nagore Soroa ibarratarra zortziko nagusian gaizki aritu arren, hobetuz joan zen zortziko ttikian, eta bere bertsokera erakutsi zuen bakar-kako lanean.

Normalean, bertsolari hasi berrientzat bakar-kako ariketa gogorragoa izaten bada ere, saioko bertso biribilene-tako bat egin zuen Soroak

bakarka, eta epaimahaiak bertso onenaren saria eman zion. Ariketa berean Oihane Pereak eta Asier Otamendik ere saio txukunak egin zituzten. Asier Otamendik bertsolari izan nahi duelako aitak aldeano deitzen dion gaztearena egin zuen.

Asier Otamendi:

...aizu hitz hori ez zen ba izango txapelarengatik edo (bis). Perea eta Otamendi ber-

tsolariak sailkatu ziren bigarren faserako, eta bertan elkarrekin kantatu zuten hamarrekotik, kartzelara joan aitzinetik.

Azkenik, publikoak ematen duen sarian —bertsolaririk xelebreenari— Asier Iriondorentzat izan zen. San Prudentzio saria irabaztea zer den badakien arren, ez zuen egunik biribilena izan, baina jendearen onespenerekin joan zen saioa amaitu ostean.

Asier Otamendi • BERTSOLARIA •

«Oinarri ona daukagu Araban»

HIRUGARREN urtez segidan txapela jantzi du Asier Otamendik, eta lehendabizikoa bertsolaria da San Prudentzio sarian hiru aldiz irabazten duena. Pozik agertu zen Otamendi hirugarren txapelarekin, eta txapelak ilusioa piztu diola baieztatu zuen.

■ **Orain bi urte Araba-Bizkaiko txapelketako finalean sartu ondoren, 1998an finaletik kanpo gelditu zinen. Berriz ere animoak hartzeko balioko al du honek?**

Bai, seguru nago baietz, edo hala espero dut. 1996an Araba-Bizkaiko txapelketako finalean izan nintzen. Ilusio handiarekin joan nintzen iaz, eta horretarako asko prestatu nintzen, ilusio eta

kontzientzia handiz joan nintzen Araba-Bizkaiko txapelketara, baina ez nintzen oso gustura gelditu, eta, gainera, finaletik kanpo gelditu nintzen. San Prudentzio sarira, aldiz, askoz ere lasaiago etorri naiz, eta horrekin batera askoz gehiago gozatu dut bertsoarekin, eta txapela jantzi! Oso pozik nago txapelarekin.

■ **Arabako bertsolaritzarentzat garrantzitsua da San Prudentzio hazten joatea. Zer urrats egin ditzake Arabako bertsolaritzak? Araba-Bizkaiko txapelketan parte hartzea baino gehiago arrabarrek zuen txapelketa egitea pentsatzen ari zarete. Zertan da hori?**

Hori ikusteko dago oraindik. Beti esan dugu oinarri ona daukagula, eta hori da garrantzitsua. Oinarri hori landu egin behar dugu, eta lanketa horretatik ateratzen denaren arabera jokatu. Oraingoz, oinarri hori lantzen jarraituko dugu. San Prudentzio sariketako finala aurten, adibidez, desberdina izan da, bi finalista berri izan ditugu, eta horrek esan nahi du mugimendua badagoela, zerbait badagoe-la Arabako bertsolaritzan.

Bizkaiko eta Arabako txapelketa bereiztearena, berriz, pentsatu, pentsatu dugu. Oraindik denbora badago, eta itxaron egin beharko dugu. Eztabaidatu, eta ideia landu.

saioak

• Asteazkena, 5

DONOSTIA

Ibaetako Ingeniaritza Eskolan, 17:30etan

Josu Oiarzabal, Aitor Albistur, Manex Mujika, Iker Goñi, Jon Ansa, Mikel Aginaga

• Osteguna, 6

BILBO

Bertso-trama Mina Espazioan, 20:00etan

Igor Elortza, Jon Maia, Unai Iturriaga, Oihane Enbeita

• Ostirala, 7

EIBAR

Club Deportivo tabernan, bertso-afaria

Unai Iturriaga, Jexux Mari Irazu

ZUMAIA

Gipuzkoako Eskola Arteko 19. Bertsolari Txapelketako kanporaketa Herri eskolan, 15:00etan

BILBO

Triki-bertso, La Merced-en, 20:30etan

Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Etzakit taldea

DONOSTIA

Psikologia Fakultatean jaialdia, 11:00etan

Amaia Agirre, Iñigo Manzisidor Mantxi, Ainhoa Agirreazaldegi, Aitor Mendiluze

• Larunbata, 8

ITSASONDO

Errota pilotalekuan jaialdia, 22:00etan

Imanol Lazkano, Jexux Mari Irazu, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Alaitz Sarasola

ONDARROA

Bertso-afaria Zubi-zaharren

Igor Elortza, Unai Iturriaga

OIARTZUN

Oiartzungo Bertsolari Txapelketa Giritia elkartearen, 21:00etan

Sustrai Kolina, Eneritz Zabaleta, Iker Goñi, Xabier Elizalde Aristi, Asier Bergaretxe, Arkaitz Goikoetxea, Jon Martin, Zuhaitz Lizarralde, Amets Arzallus, Ekhiñe Etxepeteleku

BILBO

Udaberriko Bertso Saioa Bidebarrieta Udal Liburutegian, 12:30etan

Arkaitz Estiballes, Arkaitz Ugartetxea, Beñat Gaztelurrutia, Oihane Enbeita

MUTRIKU

Bertso-afaria Hogar del Marinero-n, 21:00etan

Anjel Mari Peñagarikano, Jokin Soroazabal, Jon Azpillaga

• Igandea, 9

SENPERE

Herri Urratsen, 13:00etan

Sebastian Lizaso, Imanol Lazkano, Iñaki Murua, Andoni Egaña, Mikel Mendizabal